


VULTOURIS IBILBIDEA: Irunberriko arroila (Nafarroa)

ZAILTASUNA:
MODERATUA



Irunberriko arroilan dagoen aisiako eremuan hasten da bidea, ezkeralderantz igotzen den pista batetik barna; bidea behar bezala seinaleztatua dago, ibilbidearen panel bat eta baliza zuri-berdeak jarrita (SL-113).

Leire mendiko hegaletatik gora eginen dugu, sasi eta soroen artean, Alzuetako granjara iritsi arte. Gero, bideak beheara egiten du Irunberritik Ledeara doan bidearekin bat egin arte; hortik arroilarantz abiatuko gara.

Azken tartea Irunberriko Arroilaren Natur Erreserbaren barnealdetik doa, Iratiko trenaren garai bateko trenbideari jarraituta (Espainiako lehen tren elektrikoa izan zen). Bi tunel daude bertan; bata arroilaren hasieran, eta bestea bukaeran.



- erabili eta botatzeko objektuak edo materialak uztea, bai eta hondakinak, zaborrak, isuriak edo kutsadura sor ditzaketen beste edozein ekintza egitea ere.
- Imegafonoak edo bolumen handiko soinuak edo zaratak sortzen dituzten bitartekoak edo tresnak erabiltzea, faunaren ohiko portaera kaltetzen baitute.

IBILBIDEAREN FITXATEGIA



Ibilbidearen distantzia: 5,89 km
Gutxieneko altitueda: 407 m
Gehiengo altitueda: 593 m
Gehiengo desnibela: 186 m

Centro de Interpretación de las Foces
31440 LUMBIER (Navarra)
Tel.: (+34) 948 880 874
cinlumbi@navarra.es

<http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=1574739>
Argibide gehiago: www.vultouris.net · info@vultouris.net

- flora hondatu, aldatu edo kaltetzen duen edozein ekintza.
- faunari —edo horren habitatari— jazarpen, harrapaketa, tratu txar edo molestiak eragiten dizkioten jarduera guztiak.
- haitz, mineral, landare edo animalien laginak biltzea.

Ibilbidean zehar, haitzari lotuta bizi diren hegazti klase asko ikusten ahal dira. Zenbait espezie arroiletan bizi dira urte osoan zehar: sai arrea, belatxinga mokogorria, bele txikia... Beste batzuk, ordea, soilik udaberrian eta udan bizi dira bertan: haitz-enara, malkar-sorbeltza eta sai zuria, besteak beste.